



LANKIDETZA-PROTOKOLOA, FORU ALDUNDIEK ETA EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILAK IZENPETUA, FORU ALDUNDIEN TUTORETZAPEAN EDO ZAINZAPEAN EGON ETA ADINGABEEN EPAITEGIAK EZARRITAKO NEURRI JUDIZIALAK BETE BEHAR DITUZTEN ADINGABEEI BURUZKOA

1. ABIAPUNTUA.

ADINGABEAREN INTERES NAGUSIAK zaintzea izan behar du nazioarteko, estatuko eta autonomietako arauen helburu nagusia; beste interes legitimoak baino garrantzitsuagoa da. Interes nagusi horrek eraendu behar ditu entitate publikoen jarduerak; adingabeekiko duten erantzukizunari loturiko jarduerak, hain zuzen ere.

Erakunde publikoek erantzukizun eta betebeharrak batzuk dituzte, eta beren eskumenak baliatu behar dituzte adingabeen garapena bermatzeko; besteak beste, norbanakoaren garapena, eta gizartean eta familian duten garapena. Horretarako, sustatu egin behar dituzte garapen hori lortzera bideratutako jarduerak, eta deuseztatu edo murriztu egin behar dituzte garapen hori oztopatzen duten jarduerak.

Erakundeek elkarlanean jardun behar dute; hala ezartzen du legeak. Are gehiago, hori da beren erantzukizunak betetzeko modu bakarra. Pertsonen eskubideak, batez ere adingabeenak, bermatu egin behar dira; hori da, hain zuzen ere, gizarte demokratikoen oinarria; horrek esaten digu gizarte batek zer garapen duen. Behar gehien dituzten pertsoneri, batez ere, adingabeei, ematen zaien laguntzaren arabera da gizarte baten garapen-maila.

Erakunde publiko batzuek erantzukizun partekatua dute gizarte-arazoak dituzten pertsonetarako; horregatik, lehentasunezko betebeharra da —ezin lagazkoa— erakunde publiko horien arteko lankidetzaren oinarriak ezartzea.

3/2005 Legearen 7. artikulua araberera —3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko—,

“Organismo, entitate eta erakunde publiko eta pribatuek elkarlanean jardun behar dute, eta koordinatu egin behar dituzte beren jardunak, hurrei eta nerabeei arreta koherente, antolatua eta integrala emateko; jarduteko modu horrek babesgabetasun-egoerei errazago erreparatzea du helburu, bai eta esku-hartze eraginkorrak ahalbidetzea eta baliabideen erabilera arrazoizkoagoa izatea ere”.

131/2008 Dekretuaren 10.2.e artikulua araberan, protokolo hau ezarri behar da: *“Haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzu espezializatuek eta autonomia-erkidegoko Gazte Justiziaren arloko eskumena duen Sailak lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa”*.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2008-2012 aldirako III. Gazte Justiziako Planaren ekimenetako bat da protokolo hori ezartzea (5.7.29 ekimena, 76. or.).

2. NEURRI JUDIZIALAK ETA ZAINZA- ETA TUTORETZA-EGOERA.

Hiru arrazoi hauengatik egon daiteke gazte bat Foru Aldundien egoitza-zerbitzuetako batean: Foru Aldundiak gaztearen tutoretza hartu duelako, legezko tutoreek administrazioaren esku utzi dutelako gaztearen zaintza (zaintza administratiboa) edo auzitegiak hala erabaki duelako (zaintza judiziala). Kasu bakoitzean, zaintzaren edo tutoretzaren baldintzak kontuan hartu behar dira, Foru Aldundien eskuduntzak eta erantzukizunak ez dira-eta beti berdinak. Era berean, baldintza horiek badute eragina, besteak beste, bisitak jasotzeko, etxera joateko, komunikazioa izateko, hainbat jardueretarako baimenak lortzeko, medikuarenera joateko eta zenbait gauza erosteko baldintzetan. Horregatik, Foru Aldundiaren harrera-zerbitzuan dagoen gazte bati neurri judizialen bat ezartzen badiote, ezinbestekoa da Foru Aldundiak horren berri ematea Gazteen Justizia Zerbitzuari. Horrez gainera, jakinarazi egin beharko dio gazte horren tutoretzak edo zaintzak zer lege-baldintza dituen.

5/2000 Lege Organikoaren II. tituluaren 7. artikulua adierazten du adingabeen epaileek zer neurri ezar ditzaketen.

Neurri horiek hainbat multzotan bereizten dira; gazteak izango duen tutoretza- edo zaintza-motaren arabera dira multzo horiek.

A. **Barnealdi**-neurriak sartzen dira atal honetan: ezaugarri nagusiak.

Internamendu-neurriak:

Erregimen itxia	Zentroan egin behar dituzte ekimen guztiak.
Erregimen erdi-irekia	Zentrotik atera daitezke ekimen batzuk egiteko.
Erregimen irekia	Zentrotik kanpo egiten dituzte ekimen guztiak.

Barnealdi terapeutikoek ere hiru erregimen dituzte: itxia, erdi-irekia eta irekia.

Gazte Justiziaren hezkuntza-zentroetan bizi dira gazteak (salbuespen kasuetan, barnealdi terapeutikoak gizarte- eta osasun-zentroetan egin ahalko dira).

Barnealdian dagoenean, zentroko zuzendaria arduratuko da adingabearen zaintzaz. Adingabeak zentro horretan igarotzen duen denboraldian soilik izango du ardura hori.

Horrek ez du esan nahi Gazte Justiziaren zentroan sartu baino lehenago adingabearen zaintzaileak edo tutoreak ziren pertsonen edo erakundeen betebeharrak edo eskubideak murrizten direnik, ez eta adingabeak betebeharrak edo eskubide gutxiago dituenik bere tutore edo zaintzaileekiko ere.

B. Beste pertsonekin, familiarekin eta irakaskuntza-taldearekin bizitzeko neurriak sartzen dira atal honetan; ezaugarri nagusiak.

Neurri hori bete behar duen adingabeak beste pertsona batekin, berea ez den familia batekin edo irakaskuntza-talde batekin bizi behar du epaileak ezarritako denboran. Adingabearen gizarteratze-prozesua behar bezala bideratzeko, bizikideak kontu handiz aukeratu dira.

Bizikidetzak irauten duen bitartean, bizikide horiek —pertsona, familia edo irakaskuntza-taldearen arduraduna— izango dira adingabearen zaintzaileak. Halere, aurreko zaintzaileak edo tutoreak eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte adingabearekiko.

C. Atal honetan sartzen dira **asteburuko barnealdiak, Gazteen Justizia-zentroetan egiten direnak; ezaugarri nagusiak.**

Barnealdiak irauten duen bitartean —36 orduz—, Gazte Justiziaren sareko zentroak izango du adingabearen zaintzaren ardura.

D. Barnealdi “erdi-irekiaren” neurriak sartzen dira atal honetan: eguneko zentro batera joatea, tratamendu ambulatorioa, zaintzapeko askatasuna, gizartearentzat lan egitea, gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak, asteburuko egonaldia.

Ekimen horietako bat egin arren, adingabearen zaintza- edo tutoretza-egoera ez da aldatuko, ez eta aldi baterako ere.

E. Atal honetan sartzan dira **biktimarengana edo epaileak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbiltzeko debekua, bai eta haiekin komunikatzeko debekua ere:**

Neurri hori dela-eta adingabeak ezin badu jarraitu gurasoekin, tutoreekin edo zaintzaileekin bizitzen, Fiskaltzak igorri beharko ditu zehaztasunak adingabea babesteko erakunde publikora, erakunde horrek susta ditzan babeserako neurri egokiak. Hori ezartzen du 1/1996 Lege Organikoak.

Neurri hori aplikatzerakoan, gazteen justiziaz arduratzen den erakunde publikoak ez du eginkizunik izango; betiere, epaian aurkakorik esaten ez bada.

3. KOORDINAZIO-MAILAK.

Bost neurri-multzo horiek betetzeko, hainbat koordinazio-maila ezarri behar ditugu babeserako eta gazteen justiziarako erakundeen/entitateen artean. Foru Aldundia hasiko da beti koordinazio-lanak egiten; adingabearen zaintza- edo tutoretza-egoeraren berri eman behar du idatziz. Horrez gainera, jakinarazi egin behar du koordinazioaz nor arduratuko den. Gazteen Justizia-zerbitzuak jakinaraziko dio Foru Aldundiari adingabea zer zentrotan egongo den eta nor arduratuko den koordinazioaz. Orduan, arduradunek erabakiko dute zer komunikazio-bide erabili eta zer-nolako koordinazio-lan egin.

Hartutako neurria betearazteko lehenik eta behin kautelazko neurriak hartu behar badira (eta neurri horiek berehala betearazi behar badira), agerraldian izan diren bi ordezkariak, Foru Aldundiarenak eta epaileen justizia-zerbitzuarenak, elkarrekin hitz egingo dute eta Foru Aldundiaren ordezkariak zaintza- edo tutoretza-egoeraren berri emango dio ahoz epaileen justizia-zerbitzuaren ordezkariari. Lehenengo egun baliodunean, Foru Aldundiak txosten bat bidaliko du faxez.

A maila

A atalari (barnealdiak) eta B atalari (irakaskuntza-talde batekin bizitzea Gazteen Justizia-zentro batean) dagokio.

Kautelazko barnealdi-neurriak edo neurri irmoak betetzen ari diren gazteak epaian ezarri dieten barnealdi-erregimenaren eta –motaren mende daude. Kanpoan ekimenak egiteko (ikasketak, aisialdia, kirola, familia bisitatzea, etab.), kontuan hartu beharko da 5/2005 Legea eta haren garapen-araudia.

Adingabearen erantzukizuna duen gazte-justiziaren erakundeari dagokio gaztearen jardueraz arduratzea; gazte horri egokitutako hezkuntza-proiektu bat

egin beharko du, gaztearen jarduerak zehaztuko dituen. Proiektu hori onetsi egin behar du epaileak, gazteari neurri hori jarri dionak.

Testuinguru hori kontuan hartuta, zehaztu egin behar da adingabeak babesteko entitate publikoak, adingabearen tutoretza edo zaintza administratiboa duenak, zer zeregin dituen. Hauek dira oinarritzko koordinazio-zereginak:

Txostenak eta informazioa igortzea: bi noranzkoetan eta idatziz.
Babeserako entitate publikoko ordezkarien bisitez arduratzea: aldizka-aldizka.
Baimenez arduratzea; sendagilearenera joateko, senideak bisitatzeko, etab.
Kanpoan egiten diren ekimenen egitaraua egitea: ikasketak, ekimen terapeutikoak/klinikoak, aisialdia, etab.
Baimenez arduratzea; asteburuan irteteko, etab.
Erabilera pertsonalerako zer gauza eros ditzaketen erabakitzea: arropa, oinetakoak, betaurrekoak/lentilak, etab.

B maila

Atal horretan sartzen dira adingabeak gazteen justizia-zentroetan egiten dituen asteburuko barnealdiak, baldin eta adingabea babeserako entitate publikoaren zaintzapean/tutoretzapean badago.

Hauek dira oinarritzko koordinazio-zereginak:

Txostenak eta informazioa igortzea: bi noranzkoetan eta idatziz.
Egoitza-zentroen edo –zerbitzuen artean egiten diren lekualdaketez arduratzea.

C maila

Barnealdi “erdi-irekiaren” neurriak sartzen dira atal horretan.

Neurri horien edukiak eta ezartzen dituzten betebeharrak oso ezberdinak direnez, beharrezkoa da bereizirik aztertzea.

C.1. Eguneko zentro batera joatea

Neurri hori bete behar duen gazteak gazteen justizia-zentro jakin batera joan beharko du goizez eta arratsaldez, edo goizez soilik. Bertan gauzatuko ditu

jarduera guztiak; besteak beste, eskolakoak, eta enplegurako prestakuntzarekin, aisialdiarekin eta kirolarekin lotura dutenak.

Hauek dira oinarrizko koordinazio-zereginak:

Txostenak eta informazioa igortzea: bi noranzkoetan eta idatziz.

Zentroen artean egiten diren lekualdaketez arduratzea: babeserako zentroko profesionalek lagunduta edo ez.

Babeserako zentroko proiektuak eta eguneko zentrokoak osagarriak diren kontuan hartzea. Ekimen-egitarau bakarra egiten saiatu behar dira bi zentroetako arduradunak.

C.2. Zaintzapeko askatasuna

Neurri hori dela eta, babeserako zentro berean bizitzen jarraituko du gazteak. Hori kontuan hartu beharko da neurri hori eta neurri horrek dakartzan betebeharrak betetzeko (epaiak ezarritako betebeharrak edo 5/2000 Legeak eta haren garapen-arauek ezarritakoak).

Hauek dira koordinazio-zereginak:

Txostenak eta informazioa igortzea: bi noranzkoetan eta idatziz.

Babeserako arduradunaren (kasuaren arduraduna, tutorea, zentroko zuzendaria) eta neurri hori betearazteaz arduratzen den teknikariaren arteko komunikazioa kudeatzea; zehaztea nola komunikatuko diren eta zenbatero.

Babeserako zentroko proiektuak eta zaintzapeko askatasunarenak osagarriak diren kontuan hartzea.

C.3. Tratamendu ambulatorioa eta gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak egitea

Bi neurri horiek betetzeko, esku-hartze psikoterapeutikoa izango da jardunbidearen ardatza, edo enplegurako prestakuntza-programa zehatz bat-edo.

Neurri horiek ez dute eraginik gazteak egunean zehar egiten dituen beste ekintzetan.

Hauek dira koordinazio-zereginak:

Txostenak eta informazioa biltzea: bi noranzkoetan eta idatziz.

Babeserako arduradunaren (kasuaren arduraduna, tutorea, zentroko zuzendaria) eta neurri hori betearazteaz arduratzen den teknikariaren arteko komunikazioa kudeatzea; zehaztea nola komunikatuko diren eta zenbatero.

Neurria hartu aurreko jarduerak eta neurria hartu ondokoak osagarriak direla bermatzea eta jarduerekin jarraitzea.

C.4. Gizartearentzat lan egitea

Neurri hori betetzeko, adingabeak hainbat orduz —epaileak zehaztuko du zenbat ordu— lan egin behar du gizartearentzat, herrikideentzat, etab. Horrek, ordea, ez dio eragozpenik jarriko nahitaezko eskolaldiari, lanari eta abarri. Neurri horrek behartu egiten ditu babeserako eta gazteen justiziarako zerbitzuak elkarlanean aritzera; izan ere, kontuan hartu behar dute adingabearen ordutegia, bai eta lan horiek zentroan bertan egin ditzakeen ala ez ere.

Hauek dira koordinazio-zereginak:

Informazio biltzea; informazio horren bidez, neurri hori betetzeko plana eta plan horren jarraipena egiteko. Lan horiek babeserako zentroan egin daitezkeen erabakitzea, bai eta lan horiek zentro horretan egitea komenigarria den erabakitzea ere.

Edozein gertakariren berri ematea.

4. Protokoloaren jarraipena eta koordinazio-prozesuak abian jartzea

Protokolo hau betetzeko, koordinazio-eta jarraipen-maila hauek ezarri ditugu.

4.1. Jarraipenerako eta kontrolerako batzorde instituzionala, protokoloa abian jartzeaz eta aplikatzeaz arduratuko dena.

Batzordeok instituzio-ikuspuntutik protokolo hau abian jartzea bultzatuko du. Aldi berean, protokoloa betetzeko behar diren ekintzak sustatuko ditu, betiere, parte hartzen duten guztien adostasunaren bila.

Batzorde honek lau kide izango ditu: Eusko Jaurlaritzako Justizia zuzendaria eta hiru Foru Aldundietan kargu horren homologoa duten hiru arduradunak.

4.2. Jarraipenerako eta kontrolerako batzorde teknikoa, protokoloa abian jartzeaz eta aplikatzeaz arduratuko dena.

Batzordeek protokolo honen edukia tekniko-ikuspuntutik ondo betetzeko behar diren eginkizunak koordinatzeko sortzen da. Lau kide izango ditu: Foru Aldundien Haur eta Nerabeei Laguntzeko Zerbitzuetako hiru arduradun eta Eusko Jaurlaritzako Gazte Justiziaren zerbitzuko arduraduna.

Eginkizun hauek izango dituzte:

Protokoloa nola aplikatzen den ebaluatzea.
Proposatzea, besteak beste, protokoloa nola aldatu, hobetu eta handitu. Proposamenak idatziz egin behar dituzte. Protokoloan sartzeko, aho batez onetsi behar dituzte proposamenak.
Protokoloaren aplikazioari buruzko balioespen-txostena egitea; datu kuantitatiboak eta kualitatiboak izan behar ditu txostenak. Bi urtetik behin egin behar dute txosten hori.

4.3. Eremuak edo kasuak lantzeko taldeak/biko taldeak.

Arlo horretan lan egiten duten erakunde publikoetako bakoitzak koordinatzaile-arduradun bat edo gehiago hautatuko ditu —erakundearen egituraren arabera— kasu bakoitzean koordinazio-lanak egiteko.

Edonola ere, beti egongo da erreferentziatzeko pertsona bat (kasuaren arduraduna, etab.); probintzia horretako Foru Aldundiko eta Gazteen Justizia-zerbitzuetako erreferentziatzeko pertsona bat, hain zuzen ere.